



AKTEA/10

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

(2026-05-19)

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2026-05-19 (Asteartea)
Lekua:	Udaletxe historikoko Osoko Bilkurako areto nagusia
Hasiera-ordua:	08:35
Amaiera-ordua:	08:39
Alkate-Presidentea:	NEMEH SHOMALY NADIA
Batzordekideak:	ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA ORTUZAR BUTRON XABIER CARUEZO UGALDE MAITE
Bertaratu ez direnak:	URIARTE ANASAGASTI VICTOR GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE
Idazkaria:	BAREÑO DUÑABEITIA GOTZON



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA0016442000T9N1U2V2E7C3

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 20/05/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/05/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 20/05/2026 10:41:37

DOCUMENTO: 20261459232

Datea: 20/05/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016442000T9N1U2V2E7C3



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2026-05-12 TGB (09)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Arene Bermeo SL enpresak Bermeoko Landabaso Industrialdeko B Faseko 1-E pabiloian, ibilgailuen tailerra (txapa, mekanika eta margoketa) jarduera sailkatua martxan hasteko lizentzia onartzea.
4. - Alkatetza dekretuen berri emotea. Maiatzak 4-8.
- 5.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2026-05-12 TGB (09)

Bertaratutako batzarkideek 2026ko maiatzaren 12ko 09/2026 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

3.- ARENE BERMEO SL ENPRESAK BERMEOKO LANDABASO INDUSTRIALDEKO B FASEKO 1-E PABILOIAN, IBILGAILUEN TAILERRA (TXAPA, MEKANIKA ETA



MARGOKETA) JARDUERA SAILKATUA MARTXAN HASTEKO LIZENTZIA ONARTZEA.

Xedea

Ibilgailuen tailerra (txapa, mekanika eta margozketa) jarduera sailkatuaren eskaera: Arene Bermeo, SL.

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2026ko otsailaren 5ean, Arene Bermeo SL enpresak Bermeoko Landabaso Industrialdeko B Faseko 1-E pabiloian, ibilgailuen tailerra (txapa, mekanika eta margoketa) jarduera sailkatua martxan hasteko lizentzia eskatu zuen.

Horretarako, honako dokumentazioa aurkeztu zuen egoitza elektronikoa:

- a) Eskari-orria IN-03
- b) Jardueraren proiektu teknikoa, teknikari eskudunak egina (MDK estudio de arquitectura). Bertan egiaztatzen da jarduerak edota instalazioek dagozkien legezko betebeharrak guztiak betetzen dituztela.
- c) Enpresaren IFKaren kopia
- d) Ordezkararen NANaren kopia: Alexander Gómez González, 78956937F

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, ontzat hartu zen eta jardueraren tramitazioari hasiera eman zitzaion.

Bigarrena.- 2026ko otsailaren 5ean, osasun txostena eskatu zitzaion Osasun Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzari; hala ere, 15 egun igarota, ez zen osasun txostenik jaso.

Hirugarrena.- 2026ko otsailaren 18an, espediente BAOn eta udaleko egoitza elektronikoa argitaratu zen, alegazioak aurkeztu ahal izateko; hala ere, 30 egun igarota, ez zen alegaziorik aurkeztu.

Laugarrena.- 2026ko apirilaren 24an, ingurumen teknikariak neurri zuzentzaileen txostena egin zuen.

Bosgarrena.- 2026ko maiatzaren 12an, urigintzako AOTk txostena egin zuen.



Sinadurea eta data



Argudioak

Lehenengoa.- Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 49. artikularen arabera, jarduera sailkatuaren udal lizentziaren erregimenaren mende daude, lege beraren I.C eranskinean jasotako jarduera garatzen duten kasuetan, titulartasun publiko edo pribatuko jarduera eta instalazioen ustiaketa.

"I.C eranskina.– Jarduera sailkatuaren lizentzia behar duten jarduerak eta instalazioak.

(...)

5.– Azaleraren tratamenduak, pistola bidezko bernizatze- eta pintatze-lanak edo antzekoak egiten dituzten tailerrak.

6.– Hainbat tailer eta lantegi (ibilgailu motordunen mantentzea eta konponketa eta antzekoak, aroztegiak, galdaragintza-tailerrak, muntatze-tailerrak, mekanizaziokoak, okindegiak, gozotegiak, cateringak...), baldin eta instalatutako potentzia totala (mekanikoa eta elektrikoa, argiarena kenduta) 25 kW-ekoa edo handiagoa bada eta ekoizpenerako azalera 300 m2-tik gorakoa bada.

(...)"

Ingurumen teknikariaren txostenean ezartzen den legez, ibilgailuen tailer horretan margoketa lanak ere egiten direnez, instalatutako potentzia elektrikoa 25 kWtik gorakoa denez eta ekoizpenerako azalera 300 metro karratu baino handiagoa denez, jarduera sailkatutzat hartu behar da, eta dagokion izapidetza jarraitu beharko du.

Bigarrena.- Ingurumen teknikariak neurri zuzentzaileen txostena egin zuen otsailaren 24an; era berean, 2026ko otsailaren 5ean, osasun txostena eskatu zitzaion Osasun Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzari; hala ere, azken honek ez zuen txostenik egin 15 eguneko epean, eta izapidetzarekin aurrera jarraitu zen.

Bestalde, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen 49 eta hurrengo artikuluekin bat, jarduera sailkatuaren lizentzia espedientearen tramitazioa indarrean dagoen araudiarekin bat dator.



Sinadurea eta data



Hirugarrena.- Eskumenari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Euskal Legearen 209.2 artikulua arabera, eta TAOLeko 21.1.q) artikulua arabera, alkateak izango du jarduera sailkatuaren lizentzia emateko eskumena; hala ere, otsailaren 26ko 2026 1131 Alkatetza Dekretuz eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2026ko otsailaren 5ean, Arene Bermeo SL enpresak Bermeoko Landabaso Industrialdeko B Faseko 1-E pabiloian ibilgailue tailerra (txapa, mekanika eta margoketa) jarduera sailkatua martxan hasteko eskatutako lizentzia **onartzea**.

BIGARRENA.- Jarduera sailkatua hasteko edo irekitzeko, ingurumen teknikariak proposatutako neurri zuzentzaile hauek bete beharko dira:

1. Tailerra Udal Ordenantza eta Hirigintza Arauetara egokitu beharko da. Era berean, erakunde tekniko eskudunek xedatutako aplikazio orokorreko arau berezietara ere egokitu beharko da.
2. Ezin izango da jarri aurkeztutako memorian agertzen ez dan elementu berririk. Hortaz, jardueran funtsezko gehikuntzarik edo aldaketarik eginez gero, legeztatu egin beharko da, eta horretarako, udalean dagozkien izapideak egin eta lizentzia lortu beharko da.
3. Nahitaez bete beharko dira proiektuan adierazitako zehaztapenak eta neurri zuzentzaileak, betiere ez badoaz aurretik aipatutako neurrien kontra.
4. Eraikuntzarako Oinarrizko Araua onartzen dauan martxoaren 17ko 2006/314 Errege Dekretura (2006.03.28ko EAO-BOE) eta gainerako araudi aplikagarria bete behar da. Kasu honetan, honako Oinarrizko Dokumentuen eskakizunak:

DB-SI – Seguridad en caso de Incendio

DB-SU-- Seguridad de utilización

DB-HS -- Salubridad



5. Instalazio elektrikoak: Tentsio apaleko Araudi Elektroteknikora, abuztuaren 2ko 2002/842 Errege Dekretuaren bitartez onartua (BOE-EAO, 224 zkia, 2002.09.18 egunekoak) eta bere agindu tekniko osagarrietara egokitu beharko da.
6. Hondakin solidoak Hondakinei eta lur kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 2011/22 Lege Orokorra eta gainerako araudi aplikagarriak jarraituz kudeatuko dira. Ondorioz, jardueraren ondorioz sortzen diren hondakin industrialak aparteko edukiontzietan gorde beharko dira eta enpresak kontratatutako kudeatzaile baimendu baten bitartez kudeatu beharko ditu. Honako hondakinak sortuko direla aurreikusten da:
- a) Hiriko hondakinak (kartoia, papera, plastikoa...). Etxeko hondakintzat jo daitezkeen hondakin solidoak indarreko legediaren arabera erretiratuko dira.
- b) Txatarra eta metal hondakinak, estalpean biltegitratuko dira, isurketarik ez gertatzeko moduan; eta kudeatzaile baimendu batek erretiratuko ditu, hondakin horiei dagokien moduan.
- c) Ibilgailuen lubrifikazioko hondakin-olioak, Industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuak finkatukoari jarraituta kudeatuko dira.
- d) Baztertzen diren pilak, metagailuak eta bateriak, honako hauek ezarritakoarekin bat kudeatuko dira: pila eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretua; hori aldatzen duen uztailaren 23ko 943/2010 Errege Dekretua eta uztailaren 24ko 710/2015 Errege Dekretua.
- e) Pneumatiko erabiliak kudeatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan erabiltzen ez diren pneumatikoen kudeaketa arautzeko den martxoaren 13ko 26/2001 Dekretua eta abenduaren 30eko 1619/2005 Errege Dekretuak ezarritakoa beteko da.
- f) Bestalde, banaketa-baldintza egokiak betez erretiratuko dira jardueran sortutako hondakinak, erabili ondoren bota behar direnak (disolbatzaileen hondakinak, olio-iragazkiak, freno-likidoa, balbolinak, trapu inpregnatuak, ontzi hutsak,



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0016442000T9N1U2V2E7C3

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 20/05/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/05/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 20/05/2026 10:41:37

DOCUMENTO: 20261459232

Data: 20/05/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016442000T9N1U2V2E7C3



fluoreszentak, tonerrak eta abar) estalita biltegitratu beharko dira kudeatzaile baimendu batek erretiratu arte, inolako isuririk gertatzeko aukerarik egon gabe.

7. Produktu kimikoak, hondakinak eta abar estalpean biltegitratuko dira. Estalpe horrek zolata iragazgaitza izango du eta erresintentea izango da biltegitratutako produktuekiko. Gainera, produktuen arteko bateraezintasuna kontuan hartuko da biltegitratzeko garaian. Bestalde, bilketa sistema estanko bat eduki behako da, gerta litezkeen isuriak gelditu eta lurra ez kutsatzeko.

8. Emisioak atmosferara:

- Margo lanak horretarako instalatutako margotzeko kabinan bakarrik egingo dira.
- Kabinaren tximinia eraikuntzaren eraikin-hegaletik bi metro gora helduko da eta auzokoei usainak, zaratak edo dardarak jasanarazi gabe.
- Kabinako filtroak mantenduko dira kabinaren mantenu liburuan zehazten dan moduan eta maiztasunean.
- Langileek eskularruak, betaurrekoak eta arnasteko maskaratxoa erabiliko dituzte beti.

9. Isurketak: Tailerrak sortutako isurketa fekalek eta industrialek Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak bere isurketen Erregelamenduan ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Aurkeztutako proiektuaren arabera, ez dira ur industrialik sortzen.

Ondorioz, isurketa likido bakarrak komunetakoak izango dira, eta isurketa horiek indarrean dauden legeak betez egingo dira. Hala ere, kutxatila bat jarriko da, likidoa kolektorera isuri aurretik laginak jasotzeko.

10. Lanpostuen gutxienezko segurtasun eta osasun baldintzak: Tailer osoan *Real Decreto 486/1997, sobre disposiciones mínimas de seguridad y salud en los lugares de trabajo* (BOE-EAO, 97 zkia, 1997.04.23koa) Araudiak finkatutako baldintzak bete beharko dira.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261459232
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 20/05/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/05/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 20/05/2026 10:41:37		Datea: 20/05/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



Arlo honen barruan, bereziki kontutan izan beharko da tailer horretan produktu kimiko arriskutsuak (margoak, bernizak, disolbatzaileak) erabiltzen direla. Horregatik, langileek zorrotz betetuko dituzte produktu horien fitxetan agertzen diren segurtasun neurriak; hain zuzen be, erabilgarritasun baldintzak eta banakako babeserako elementuen erabilera.

11. Zaratak: Behar diran neurriak hartuko dira zarata-kutsadurari aurre egiteko, zarata-eragin urriagoa duten teknologiak aplikatuz; betiere, eskuragarri dauden teknikarik onenak haintzat hartuz eta teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diran eta gutxien kutsatzen duten teknologiak, kasuan kasu zarata eragileraren ezaugarriak kontutan hartuta. Nolanahi ere, jarduerak Bermeoko Zaraten eta Dardaren aurkako babeserako Ordenantza (BAO. 137. zk. 2016, uztailak 19) bete beharko du. Batez be:

Artículo 29.- Niveles permitidos. No se permiten niveles sonoros que superen, en el ambiente exterior e interior de los edificios, los valores límite que se indican en las tablas siguientes:

Tabla D.—Valores límite de inmisión máximos de ruido aplicables a actividades existentes y nuevas

Tipo de área acústica o edificaciones aisladas del uso descrito	Índices de ruido	L _{Amax}
-----------------------------------------------------------------	------------------	-------------------

b Ámbitos/Sectores del territorio con predominio de suelo de uso industrial	90	
-----------------------------------------------------------------------------------	----	--

Tabla E.—Valores límite de inmisión de ruido aplicables a actividades existentes y nuevas (en el medio receptor)

Índices de ruido	Tipo de área acústica o edificaciones aisladas del uso descrito	Índices de ruido
------------------	-----------------------------------------------------------------	------------------

	L _{K,d}	L _{K,e}	L _{K,n e}
--	------------------	------------------	--------------------

a Ámbitos/Sectores del territorio con predominio de suelo de uso industrial	65	65	55
-----------------------------------------------------------------------------	----	----	----

Era berean, inguruko eraikinean edo lokalen egiturei dardarak transmitzeko sahiesteko, halakoak behar dituzten makinek dardaren aurkako gailu egokiak edukiko dituzte.

Horrez gain, ahal dela tailerraren ateak isil motakoak izango dira.

12. Debe katuta dago autoak garbitzea eta eraikinaren kanpoaldean ibilgailuak utzi eta konpontzeko lanetan aritzea.



13. Baimenak eta Ziurtagariak:

- Certificación expedida por persona técnica competente que acredite que la actividad y/o las instalaciones se adecúan al proyecto constructivo y a la documentación técnica presentada y que se han cumplido las medidas correctoras impuestas.
- Copia del Registro en el Departamento de Industria como taller mecánico y su especialidad (mecánica, electricidad, chapa y pintura.
- Certificado de puesta en servicio de la instalación eléctrica.
- Certificado de puesta en marcha de las Instalaciones de Protección contra Incendios (extintores, sistema de detección y alarma, y BIE), emitido por empresa autorizada.
- Certificado de gestión de los residuos peligrosos generados (residuos de aceites de motor, pinturas, disolventes, etc.), emitido por gestor autorizado.

HIRUGARRENA.- Interesdunari ohartaraztea neurri zuzentzaileak hartu ostean jarduera hasteko, titularrak jakinarazpen bat aurkeztu beharko duela udalaren aurrean, eta agiri horretan bere erantzukizunpean adierazi beharko duela instalazioa onartutako proiektuarekin bat datorrela eta, hala badagokio, jarduera sailkatuaren lizentzian ezarritako neurri zuzentzaile osagarriekin. Gainera, ezarritako baldintzak betetzen jarraitzeko konpromisoa adieraziko du. (10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena, 54.art)

Jakinarazpen hori egingo da instalazioak martxan jartzeko gaituta daudenean, eta, hala badagokio, hirigintzako nahitaezko lizentziak, jakinarazpenak edo inskripzioak eduki beharko ditu dagozkion erregistro sektorialetan. (10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena, 54.art)

Jakinarazpenarekin batera langile teknikari eskudunak sinatutako ziurtagiri bat aurkeztuko da, lizentziaren helburu den jarduera motaren arabera, eta egiaztatuko du instalazioak onartutako proiektuarekin bat datozela eta jarduera sailkatuaren lizentzian ezarritako baldintzak bete direla. (10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena, 54.art)

Aurreko jakinarazpena aurkezteak gaitu egiten du une horretatik aurrera jarduera eraginkortasunez egiteko. Nolanahi ere, administrazio publikoek beren eskumenen arloetan egiaztapen-, kontrol- eta ikuskapen-gaitasunak baliatu ahal izango dituzte.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261459232
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 20/05/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/05/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 20/05/2026 10:41:37		Datea: 20/05/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidea: Erregistro nagusia



(10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena, 54.art)

LAUGARRENA.- Ebazpen hau udalaren egoitza elektronikoan argitaratzea. (10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena, 53.3. art)

BOSGARRENA.- Ebazpenaren berri ematea interesdunei, txostenen bat egin duten organoei eta EAEko ingurumen organoari. (10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena, 53.3. art; 53.4. art)

SEIGARRENA.- Hurrengo Osoko Bilkuran erabakiaren berri ematea.

4.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

5.- ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da egon eskari eta itaunik.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administraziozko zenbakidun paperean jasoko da.

Bermeoko Udalaren bilkura hau ikus-entzunezko euskarrian grabatu da "20260519_TGB.mp4" izeneko dokumentu digitalean, "Tokiko Gobernu Batzarra 19-05-2026" aktari dagokionean. Akta hori udal-sistema informatikoan gordetzen da, eta haren osotasuna eta egiazkotasuna bermatuta geratzen dira bilkuraren administrazio-espeditate elektronikoari erantsitako dokumentu lektronikoaren bidez, Eta ondorengo Osotasun Kodearekin (SHA-256):

68c3c531614300e1232051042c5387dbf4f258882c9ee4aa6deb93bfeb398238

Euskarri horretan jasota daude bilkuraren eguneroko eztabaidetan parte hartu duten zinegotzien eztabaidak eta bozketak. Akta hau eskuragarri egongo da hurrengo



helbide honetako atari pribatuan:

<https://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/pribatua>

Orrri oinean sinatzaileak eta datak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0016442000T9N1U2V2E7C3

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 20/05/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/05/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 20/05/2026 10:41:37

DOCUMENTO: 20261459232

Fecha: 20/05/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

